

**9/2020 INSTRUKZIOA****NORK: OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA****NORI: OSAKIDETZAREN ZUZENDARITZA NAGUSIKO  
ZUZENDARITZA ETA ZUZENDARIORDETZEI****GAIA: OSASUN SAILBURUAREN MARTXOAREN 18KO AGINDUA  
APLIKATZEKO IRIZPIDEAK, COVID-19AK ERAGINDAKO  
LARRIALDIARI AURRE EGITEKO OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA  
NAGUSIAN MATERIALA EDO EKIPAMENDUA EROSTEARI ETA  
ZERBITZUAK KONTRATATZEARI DAGOKIENEZ.**

Covid-19aren krisia dela-eta Euskadin egindako larrialdi-adierazpenaren eta estatu mailan eragindako alarma-egoeraren adierazpenaren testuinguruan, Osasun sailburuak 2020ko martxoaren 18an Agindu bat onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoan eskuragarri dauden osasun-, kudeaketa- eta boluntariora-baliabide guztiak kudeatu eta koordinatuko dituen Zuzendaritza Batzordea sortzeko.

Zuzendaritza Batzordeari esleitu zaizkion eginkizunen artean dago, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu publiko, itundu eta pribatuko laguntza-baliabide guztien kudeaketa koordinatua eta integrala.

Instrukzio honek agindu hori aplikatzeko irizpideak zehazten ditu, Zuzendaritza Nagusiak egin beharreko material- eta ekipamenduerosketei eta zerbitzuen kontratazioari dagokienez, eta erreferentzia gisa hartzen ditu agindu hori onartu zenetik Sailak ezarritako jarraibideak eta data horretatik aurrera aplikatzen ari dira.

Azaldutako guztiagatik, eta Osakidetza Estatu Sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11 b) artikulua xedapenak Zuzendaritza Nagusiari esleitzen dizkion eskumenez baliatuz, instrukzio hau ematen da:

## INSTRUKZIOA

**LEHENENGOA.-** Osasun Ministerioaren martxoaren 15eko SND/233/2020 Aginduan zerrendatutako beharrezko materialei dagokienez, behar den kontratazioa Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak egingo du, Aurrekontuak Kudeatzeko Zuzendariordetzak proposatuta eta Osasun Sailaren aldez aurreko baimenarekin, Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzaren edo Osasun Sailburuordetzaren bitartez.

**BIGARRENA.-** Prozedura bera jarraituko da COVID-19aren pazienteak artatzen dituzten ospitaleak eta tokiak (egoitzak, hotelak, etab.) hornitzeko beharrezko ekipamendua eskuratzen denean (arnasgailuak, x izpiak, ZIU oheak, monitorizazioa, etab.). Kasu horretan, proposamena Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen Zuzendariordetzak egingo du, eta baimena Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzari edo Osasun Sailburuordetzari emango zaio.

**HIRUGARRENA.-** Eskuratutako materiala eta ekipoak Osakidetzaren laguntza-sareko zentroetara, euskal osasun-sistema osatzen duten erakunde eta eragileetara eta/edo Covid-19aren krisian inplikaturako beste erakunde batzuetara bideratuko dira, Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzak edo Osasun Sailburuordetzak kasu bakoitzean erabakitzen dutenari jarraiki.

Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen Zuzendariordetzak instrukzio honetan aipatzen den materialaren eta ekipamenduaren azken helburuaren berri emango dio Zuzendaritza Nagusiari.

**LAUGARRENA.-** Material eta ekipamendu hori kontratatzeke eta eskuratzeko, premiazko prozedura erabiliko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Prozedura hau bera aplikatuko da Zuzendaritza Nagusiak larrialdi-egoera honetan ESlek bitartekoak, baliabideak eta pertsonak modu

eraginkorragoan kudea ditzaten behar diren arloak ziurtatu, indartu eta laguntzeko zerbitzuak kontratatzean.

**BOSGARRENA.-** Material eta ekipamendu hori eskuratzea eta hornitzaileek ezarritako hornidura-baldintzak zailak direnez, kontratatutako materiala eta ekipamendua aldeztatik ordaindu ahal izango dira, Osasun Sailak baimena eman ondoren, instrukzio honen 1. eta 2. zenbakietan deskribatutako prozedura betez.

Eskaerak aldeztatik ordainduz gero, proforma faktura bidaltzeko eskatuko da, Sailaren oniritziarekin.

**SEIGARRENA.-** Erosketa hauen testuinguruko salbuespenezko inguruabarrak direla eta, aipatutako zuzendariordetzek egindako proposamena eta Sailaren baimena egiaztatzeko nahikoa izango da horien eskaera eta baimena justifikatzen duen edozein jakinarazpen frogagarri.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 27an



Iz.: JUAN LUIS DIEGO CASALS  
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA